

2014ko ABENDUAREN 17AN BIGARREN DEIALDIAN EGINDAKO INAZIO BEREZIARTUA MUSIKA ESKOLAKO BATZAR OROKORREKO AKTA

GAI ZERRENDA:

- 1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA
- 2.- MEMORIA AKADEMIKOA
- 3.- 2013-2014 IKASTURTEAREN BALANTZEA
- 4.- 2014-2015 IKASTURTEKO AURREKONTUA
- 5.- EKINTZEN EGITARAUA
- 6.- ZUZENDARITZA BATZORDEAN PARTAIDE BERRIEN ONARPENA
- 7.- ESKAERAK ETA ERANTZUNAK.

Iluntzeko 8etan hasi da bilera boto eskubidea duten 8 pertsonarekin.

1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA.- Aho batez onartu da.

2.- MEMORIA AKADEMIKOA.-Jose Antonio Gomez Garrido jaunak memoria akademikoko datuak azaldu ditu. Ikasturte honetan 601 ikasle daude, 392 neska eta 209 mutil. 5 eta 6 urte bitarteko ikasleak (64), 7 urtekoak (46) eta 8tik aurrera adin mugarik gabe: akordeoia 13, biolina 38, biolontxelo 24, bonbardino 1, dantza 223, flauta 17, gitarra 47, kantu korala 80, klarineta 20, hizkuntza musikala 176, oboea 5, panderoa 8, perkusioa 29, pianoa 98, saxofoia 30, trikitixa 20, tronboia 14, tronpa 4, tronpet 18 eta txistua 7.

3.- 2013-2014 IKASTURTEAREN BALANTZEA-

Sarrerak:

Ikasleen kuotak207.481,15
Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza.....167.910
Udala419.913,1,-
Sarrera finantzarioak.....121,85
Sarrerak guztira795.426,1€

Gastuak:

Pertsonal gastuak713.505,17
Gastu orokorrak82.441,61
Gastu finantzarioak5.127,05
Amortizazioak741,96
Gastuak guztira801.815,79€
Ekitaldiko defizita.....-6.389,69

4.- 2014/15 IKASTURTEKO AURREKONTUA

Sarrerak:

Ikasleen kuotak210.060
Diru laguntzak:
Eusko Jaurlaritza167.910
Udala403.730
Sarrerak guztira781.700

Gastuak:

Pertsonal gastuak698.000
Ustiapen gastuak77.700
Gastu finantzarioak6.000
Gastuak guztira781.700

5.- EKINTZAK

Imanol Garaizabalek ikasturte honetako ekintzen egitaraua irakurri du, aurreko urteetako dinamika jarraituaz.

6.-- ZUZENDARITZA BATZORDEAN PARTAIDE BERRIEN ONARPENA

Guraso edo ikasle berriak Zuzendaritza Batzorderako beraien burua aurkezteko, dazkaritzan eman behar zuten izena. Ez denez inor aurkeztu, gaur egungo Juntak Mari Jose Zubiaurreri eskatu dio izena eman, eta bere autagaitza aurkezteko. Horrela egin zuen, eta batzar orokorreko puntu hontan aho batez onartu da Zuzendaritza Batzordeko bokal berri bezala.

7.- ESKAERAK ETA ERANTZUNAK.-

Beste gairik ezean Jose Antonio Gomez Garrido lehendakariak bukatutzat eman du bilera.